



BEZERO KANALAK

Bezeraok lortzeko gure lema eramango duen kartelak sortuko ditugu eta herri ezberdinetan itsatsiko ditugu. Gainera, sare sozialetan publizitatea egingo dugu etengabe, bai Instagram, Twitter, Facebook eta Whatsappean ere. Kartel eta sare sozialetan gure ordutegiak, ekintzak, prezioak, etab. eguneratuta izango ditugu. Modu horretan, bezeraok irabaziko genituzke eta horiek guk atxikitutako telefono zenbakira deituz, whatsapp bat bidaliz, email-a idatziz edo gure publikazioei erantzunez kontaktuan jarriko ginateke. Bestalde, gure lokalaren helbidea ere adieraziko genukenez, bertara joateko aukera ere izango lukete.




Behin bezeraekin kontaktuan jarrita, gure harremana modu berdinean eramango genuke: digitalki edo presentzialki. Ildo beretik, aplikazio berezi bat sortuta izango dugu, bertan bakoitzaren hilabeteko erreserbak, ordutegiak, eguneroko klaseak eta aurrerapausoak ikusi ahal izango dituzte. Modu horretan, bezeraok hilabeteen zenbat egunetan joaten diren ikusiko genuke eta horren arabera prezio bat edo beste ordaindu behar izango dute.

G-MEL S.KOOP.

Ezintasunak, trebetasun



Larunbatak txapelketa egunak izango dira eta nahi duenak etortzea izango du, aplikaziotik ordua hartuz edo lokalean bertan guri aditzera emanaz. Bakoitzaren asteroko aurrerapausoak aplikazioan bertan edo lokalean eguneratzen joango ginateke eta modu horretan urtean zeharreko aurrerapauso osoa ikusterik izango lukete, hilabetero aurrerapauso baten laburpena egingo baitugu.



Aholkularitza saioei dagokienez, berriro ere, ordua aplikazioaren bitartez edo lokalean bertan erreserbatzea izango lukete. Aholkularitza saioak bakarka izango liratezke eta bertara hurbiltzerik ez lukenak, online egiteko aukera izango luke. Halere, saio horiek presentzialki egitea gomendatzen dugu, saioak efizientegoak izan daitezzen.